

Martxoaren 17ko 239/1998 FORU AGINDUA, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitorpen-likidaziorako 310 eredua onartzen duena.

Otsailaren 1eko 49/1995 Foru Aginduaren bitartez onartu zen Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren aitorpen-likidaziorako 310 eredua.

Otsailaren 17ko 12/1998 Foru Dekretuak, Gipuzkoako lurralde historikoaren zerga araudia Estatuaren 1998ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 65/1997 Legea eta Zerga, Administrazio eta Gizarte Alorreko Neurriei buruzko abenduaren 30eko 66/1997 Legea egokitzen duenak, aldaketa handiak sartu ditu Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen erraztuaren erregulazioan. Aldaketa horiek berekin ekarri dute aipatu 310 eredua aldatu beharra.

Gauzak horrela, hau

XEDATU DUT

1. artikulua. 310 eredua onartzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergaren erregimen berezi erraztuaren hiruhilabeteko aitorpen-likidaziorako 310 eredua onartu da. Foru agindu honen eranskinean jasota dago.¹

2. artikulua. 310 eredua erabiltzera behartuak.

310 eredua Balio Erantsiaren gaineko Zergaren sujetu pasiboek erabili behar dute, baldin eta zerga horren erregimen berezi erraztua aplikatzen zaien jarduerak besterik egiten ez badituzte.

3. artikulua. 310 eredua aurkezteko epea.

310 ereduaren aurkezpena eta, hala behar denean, kuotaren zenbatekoaren ordainketa epe hauetan egin behar da hiruhilero:

- Apiril, uztail eta urriaren 1etik 25era, lehen, bigarren eta hirugarren hiruhilabeteei dagokienean, hurrenez hurren.
- Laugarren hiruhilabeteko aitorpen-likidazioa "urteko laburpena" den aitorpen-likidazioan sartuko da, eta ondoko lehen urteko urtarrilaren 30era arte aurkez daiteke.

4. artikulua. 310 eredua aurkezteko tokia.

1. Eraitza positiboa duten aitorpen-likidazioak direnean (ordaintzekoak), zergabiltzetan laguntzaile gisa jarduteko Zergabiltzetaren Erregelamenduan

¹ Eredu hau ikusteko "zerga aitorpenak" apartatura jo beharko duzue

baimendutako diruetxeetako baten bitartez aurkeztu behar dira: bankuak, aurrezki kutxak edo kreditu kooperatibak.

2. Eraitza negatiboa duten aitopen-likidazioak direnean (konpentzatzekoak), aurreko apartatua aipatutako entitateetan ez ezik, zerga bulegoetan edo Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zeharkako Zergak Kudeatzeko Zerbitzuan ere aurkez daitezke.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrik gabe geratu da, 310 ereduari dagokionean, otsailaren 1eko 49/1995 Foru Agindua, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren aitopen-likidazioaren 300, 308, 309, 310, 320, 330 eta 370 eredu berriak onartzen dituen.

AMAIERAKO XEDAPENA

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean jarriko da indarrean.